

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Juanita Txintxurreta Ugalde

*Donostia,
Gipuzkoa
(1932)*

Aurkibidea



Biografia



Martuteneko Txurriategi baserrian jaioa, Urumea ibaiaren ondoan. Aita bertakoa zuen, eta ama Astigarragako Petrategi baserrikoa. Hiru senide ziren, euretako bat Fraisorotik ekarria. Bederatzi urte zituenerako txanelean ibiltzen zekien Juanik, ibaiaren beste aldera joateko. Okondotegin ibili zen eskolan; erdaraz ikasten zuten. Baserriko lanetan trebatu zen umetatik: zaldia, behiak, txerriak, ahateak... zituzten, eta baratz-soroak. Ama Bretxara joaten zen tratuarekin; esnea partitzen zuen, eta gobara ere egiten zuen. Juanita etxera ezkondu zen, eta alargun geratu 31 urterekin, alaba txiki batekin. Berrito ezkondu zen, Berrobiko Joxe Urkizarrekin, eta beste alaba bat izan zuten. Txurriategi erorita dago gaur egun, eta Astigarragan bizi dira.

Zintak

DON-095

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2010-03-22
- **Iraupena:** 139 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Idoia
- **Transkribatzailea(k):** Etxeberria, Idoia

Pasarteak

1. Txurriategiko bizimodua

- **Erref:** DON-095/002
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 00:00:54. **Bukatu:** 00:03:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Txurriategi baserrian jaio zen, Martutenen. Bere jaiotza kontatzen du. Altxatik zaldi gainean joan zen medikua. Gurasoen inguruan ibiltzen ziren beti. Aitona. Aita. Anaioordekoa zuen, Fraisorokoa; denera hiru senide ziren. Amak tifusa harrapatu zuen.

2. Osaba gabarraria

- **Erref:** DON-095/004
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 00:03:36. **Bukatu:** 00:04:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Osaba gabarrarekin joaten zen hondar bila Kursaalera. Txurriategira eta Gartziategira eramaten zuen. Obretarako, ganaduen azpiak egiteko.

3. Baserría, errioren ondoan

- **Erref:** DON-095/005
- **Iraupena:** 0:02:42. **Hasi:** 00:04:33. **Bukatu:** 00:07:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak

Laburpena:

<p>Txurriategi baserría eroria dago. Ur handiekin gaizki ibiltzen ziren. Animaliak ere gora eramaten zituzten. Txerriak. Baserriko giroa. Txanelean pasatzea ez da erraza. Beti erriotan. Esnea partitzen zuten, normalean amak. Tranbia.</p>

4. Bederatzi urterekin, txanelean

- **Erref:** DON-095/007
- **Iraupena:** 0:02:58. **Hasi:** 00:08:48. **Bukatu:** 00:11:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

<p>Ama Astigarragakoa zen, Petrategikoa. Seietarako aitarekin pasatzen ziren txanelean, Astigarragara joateko mezetara. Bera bederatzi urterekin hasi zen txanela erabiltzen. Ezin zuten igeri egin neskek. Nora joaten ziren amarekin. Erosketak. Etxeko jana.</p>

Transkripzioa

-Ama, zuen ama... nungua zan zure ama?

-Ama Astigarragakua. Petrategi. Bi bizitza dia; bat uain taberna dona ta behian bestia zeona. Bai, Petrategikua zan ama. Astigarratarra. Nik erdiya astigarra det. Geo etortzen giñenian, txanelian pasa goizeko... gaztetan, e, ai naiz, e. Eee... ordun pasatzen giñan seitako txanelian aittakin. Denak, famili osua, Astiarrara mezeta etortzen giñan. E, sei t´erditan izaten zan meza, ordun jun bihar izaten zan [...] han aurrena eon behar zan meza hasteako. Handik ateatzen giñenian, etxea etortzian atsaldian ateatzeko libre, e, baiño ez paziñan goizian ateako mezeta, ez ziñan atsaldian ateatzeik.

-Ez, e?

-Ez, ez, ez.

-Egunero-egunero?

-Jaitan. Jaitan, igandetan!

-Aaaaaa.

-Igandetan. Ba astian ezta pentsatu atea! Beti etxian, han geok basarrian beti lanian! Beti zeoze zan.

-Eta mezetara, orduan, jaitan.

-Jaitan eo igandetan juten giñan. Bai, eta...

-Txanelian aitakin.

-Txanelakin aitakin pasatzen giñan. Eta geo ni txanela beatzi urtekin o hola hasi nitzan pasatzen.

-Eta...

-Majiña bat /majiñat/ pasa naiz! Eta gaiñea eroi [...] eta igeri jakin ez! Igeri jakin ez, zuk ustezu beste gauz bat ikasi gabe no oaindikan igari! Zeatikan anaiyak, aittak primeran zakiten, gizonak denak, baiña emakumeik ez zeon /etzeon/ ibiltzeik. Ez genun ez trajebañoik, eta ez genun ezer! Go... zea, orduan gona motxa esaten genun, ta hua uretan sartzen bagiñen. Aita ta ama siesta pixkat juten bazian, ordun korrika sartzen giñan, marea bazeon, ureta, pixkat aber ikasten uten o. Korrika, ikusten genun tranbia pasatzen zala, korrika berriz´e arbola atzea! Ikagarrizko arbolak, hola jarri ta intxorrak, e. Zien, hola jarri ta... itzal bat ematen zun! Jendia pasatzen zan, aiyo iten bazigun ta gu kontentu! Txoatuta eoten giñen, kontentu aiyo iten bazun, baaa. Ez giñan... iñor etortzen bazan hitz ein ta /da/ gehiyo... nik ez takit pa. Ateatzen zien ama ta aitta´re urtian lau bier o ateatzen zien.

Ateatzen zan... ama ez zan /etzan/ juten zeara, etxian kontu in eo gelditzen... baten (b)at gelditu behar izaten zun... eta ama ateatzen zan zeara... o aitta, ta aittona juten giñen zeara, Fagolla han meza nausiya ta San Antonio ta... Geo, ama ta aitta ta juten giñen geok Lezoa. Ta geo Zikuña ta geo Urnieta han bendiziyua o ez takit ze ematen ziguten umieiri ta. Ta ordun Urnieta. Lau ateraa o ez dakit ze iten zun gue amak.

Gaiñekuan dena etxian. Ta gaiñekuan Donostian, gero bai, e!

-Eta erosketak-eta han ingo zitun, Donostian.

-Donostiandik arraiya ekartzen zun askotan. Ba etxian dena izaten zun gaiñekuan. Txerrikiya, dena, heztik, arraultzak asko ez baiño bi bizitza nola zian batek han iten zuna ta armonin igual aitzen giñan, baiño... behintzat, e, beti etxian jaten... goseik ez genun pasa guk gerra denboan, e. Ez gendun.

5. Txanela nola erabili

- **Erref:** DON-095/008
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 00:11:46. **Bukatu:** 00:14:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Beste garraio batzuk

Laburpena:

<p>Txanela erabiltzearen zailtasunak. Errioa. Beti uretan. Hanka-hutsik. Eskailerak jarri zituzten. Jende bila joaten ziren, errioa pasatzeko.</p>

Transkripzioa

-Eta esan dezu txanela erabiltzia ez dala errexa.

-Eeez. Hoi... korrientia gelditzen zan bajatze(n) zanian, eta in bihar zenun eskubita, jun bihar bazenun bestaldea, lenbizi eskubitik gora iyo, hola sartzen zenun makil... makil sendo bat, puntan burniya zun. Hua sartzen zun, indarra iten ziñozun. Han eroi´re bela in zeiken /intzeiken/, e! Hortikan, e! Baiña gu urian noizna pasatze(n) giñan oiñez, honeaiñoko gerria urian igual. Marea iyotzen ai zan bezela zu ez baziñan agudo etortzen, eo mareai bastante beiratu [...] geo ya o bustitzen zeala o beti uretan, hankutsik... Beti, ez genun ezerre izaten, ez abarkik, ezer ez. Oiñetakoiko´re ez, hankutsik gu ibiltze(n) giñan. Eantzi, eskutan oiñetakuak dittuzula, eta anaiya o bate(n) /(b)at igual: "Bueno, hoi... nik bizkarrian pasako at!". Ta bajatzen zanian bizkarrian igual pasa... Baiña hor iyotzen ziñan, ta pixkana gora iten zun. Gero eskaillerak-eta geo nere difuntuak´e jarri zun, timbria jarri zun. Zeatik uju in iten baigiñun bestaldea. Tankera ematen giñun, guk sukaldetik bela baigenun kanpua, sototikan kanpua bela gendun. Eta atentzion eoten giñen, "ba oain etorrikok", baiño askotan beandu igual, ez zeola /etzeola/, ta atentzioan, baiña ez bazeunden atentzion, uju iten gendun: "Antoniooooo!". Ta zuk bertan aittu biharrian igual Astigarran aittuko zun. Builla, urak eaman iten zun.

-Urak eraman, bai, e?

-Bai, bai, bai. Boza eaman iten du, e?

-Eta norbait etorritakuan, pasatzen...

-Pasa zean, billa, billa.

-Txanelian.

-Bai, billa. Zuk ez pazenun eaman ta bea bihar zalako, ez zeon /etzeon/. Zui pasa, zuk jun biha zenunian pasa in behar zizun bate(n) (b)atek. Aittak eo amak eo nik, o jun bihar danian ta /da/ geo billa, etortzen zanian eo etortzen giñenian ordun beak billa. Baiño zuk hortako deitu in behar dezu / behazu/, zertako haik zelaiyan igual, edo etxian igual, ukuillun eo... eta deitu in behar izate(n) zan eta askok hola... jendia etortze(n) zan ba batzuk saarduakin earki jarrita. "Bai, nik horra pasa behar dit". O "mendira jun behar dit" o neskan billa o jun behar dula o... andregaiya igual beste basarrin, ta /da/ handik uretik pasa denak iten zian, denak.

-Denak, orduan.

-Bai. Eta jesuus! Nik batzui errespetua jartzen niyoten! "Nei ez txoakeitan hasi, bakizu hemen eroi ingo zeala". "Bai, nik zuk baiño lenuo pasako (d)et". Ta hasten zan, hasten zian, uste zuten, baiña ez baitzen indarra biher, indarra bakarrik ez. Han sartzen bazan, azpia txanelan kontra igual zeatzen zan, ta eroitzeke peligrua ta "zu atzian hor exei! Ta nik...", "porque" (oh)ola baitzan: hemen zan txanelian, hemen bi (oh)ola´re. Erdin

(oh)olak dia, ta hoi oñez juteko. Bai. Ttikiya´e badet nik, nahi bazu hola ateatzeko. Ttikin ateria baita hau.

6. Uholdeekin larri

- **Erref:** DON-095/010
- **Iraupena:** 0:02:54. **Hasi:** 00:14:47. **Bukatu:** 00:17:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak
- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:

<p>Aitonari asko gustatzen zitzaizkion arbolak. Udareak, sagarrak. Intxaurreak biltzen erriotan, ur azaletik. Ur handiekin izandako komeriak. Urez inguratuta geratzen ziren. Behiek nola igotzen dituzten eskailerak.</p>

Transkripzioa

-Guk ikearrizko arbol pilla giñun. Haik udarezarrak; udarak, udariak, arbolak, ne aittona ikearriya zan arbolakin. Saar klase, haik klase pilla! Oain ez dao /eztao/ holako saar klaseik eta ez... ez udare haik. Udariak´e etortze(n) zian eskolatik umiak... mizpera ere bai, mizperak toki guzitan erriyo bazkarrian. Geo jute(n) giñan txanelakin, heldu askai eta biltzen bertan. Intxorra arbola haundiya eroitzen zan, aliak asko haizia o hegohaizia, udazkenian eta denak biltzea bi bizitzak jute(n) giñan, ontzi haundikin hartu ta zenek gehiyo bildu! Erriyuan neoni ibiltze(n) nitzen, baiño eaman iten zun, baiño marean geldik izaten zien mareak eta ordun asko biltzen zan, intxorra gaiñian. Han bueltan.

-Uretan?

-Klaro! Korrientia ez don /ezton/ tokin ez zun /etzun/ eamaten, baztatu ite(n) baizan, eta baztartzen zienak aprobetxatze(n) gendun. Ta bai, bueno, zenbat gauza, jesus! Eta ganauakin ta /da/ zenbat ixtori dittut! Jesus! Zenbat peligro!

-Erriyuan esan dezu ura-eta igotzen zanian ta /da/ geixki ibiltzen ziñatela.

-Bai.

-Ta hola gogoratzen dezun hola umetako... hola geizki ibilitako lenengo aldiya edo...

-Ez takit, ni ttikitan esan zun /esantzun/ amak eoten nitzela irrintzika txekorrak-eta onduan igual, eta haik iten zuen mobimentun, irrintzi txikitan aitzen... Baiña nik peligrak nola esango (d)izut gauza asko dittut peligrun... Hor, e, etorri zian behin, urte batian, azkeneko oain dala urte... azken bastante urak haundik izan zian hor Bilbaun etorri zala. Hemen Donostin botako zala, gui atea, gu etxian gelditzen baiñian. Dena uretan, buelta guztiya, eta basarrin bertan gelditzen giñan gure zean. Ez giñan ateatzen, ez gi...

-Gora igota?

-E, bai. Denak goiyen eoten giñen. Biha dena uretan, eta buelta guziya, baratzak eta dena uretan. Martutene guziya uretan. Guria harrapatzeako Martutene harrapatua do. Horrek emate... erriyo onduan do baiño gue basarriya zeon altuagua. Eta haste(n) zan beheko terrenotikan hasten zan ixten, biria itxi ite(n) ziun. Eta ordun iñoa ez zakazun ateatzeik. Eta ordun ganaua gue aittonak tokiya zakan jarriya. Geo hango (oh)olak zian beltz

itxi hoik /itxiyoik/, ez takit ze izen esaten (di)yoten, pagua, ez takit, beltz-beltzak zian, fuertiak. Oaindikan´e ez takit dana eroi dian haik. Baiño han eoten zan... ganauak eamaten ziñun... geo ganbara gendun haundiya...

-Eta hara eramaten...

-Gora. Dena. Eskailleratan ez takizu nola iyotzen dien, zeak, behiyak eta txekorrak eta nola iyotzen zien. Diki-daka gora. Baiño jesten gaixki, jesten. Ordun simorra, simorra botata. Pentsa zazu, eskailleratan simorra bota bihar. Haik jesteko... zeatik haik abaiyan jesten zianian zeorren gaiñea salta zeiken. Ta alde iñ´e bai agudo!

-Ta pixua, ez? Hori gaiñera erori ezker...

-Aber! Min hartzeko arriskua.

-Bai, bai.

-Eskallarak zabalak zian, eta eskerrak, baiño hala ere miña hartzeko arriskua. Hain adarrak ta /da/.

7. Gazte alargundu zen

- **Erref:** DON-095/014
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 00:21:46. **Bukatu:** 00:24:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

Txerriak ganbarara eramaten zituzten, uholdeetan. Anaiordekoaren kontuak. Alargun geratu zen bera, etxean aita-amarekin. Senarra nola ezagutu zuen. Gizon baten beharra zuen baserrian. Lutoa. Apaizek zenbat kobratzen zuten.

8. Okondotegira eskolara

- **Erref:** DON-095/016
- **Iraupena:** 0:03:36. **Hasi:** 00:24:25. **Bukatu:** 00:28:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Eskolan hasi aurretik, pizarra batekin ibiltzen zen. Aita oso jantzia zen; non ikasi zuen. Okondotegira joaten ziren eskolara. Teresa maistra. Neska-mutilak elkarrekin. Dena erdaraz. Fraisorora nola joan ziren anaiordekoaren bila.

9. Beti mutil artean

- **Erref:** DON-095/017
- **Iraupena:** 0:03:17. **Hasi:** 00:28:01. **Bukatu:** 00:31:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

<p>Pilotan jokatzeko zuten. Baserriko jolasak. Gordeketan. Mutilez inguratuta. Ama Portutxora joaten zen tranbia hartzera; aurretik, orraztu egiten zuten. Aitonak aitari esaten zion umeak eskolara bidaltzeko. Eskolan, tratatu gogorra. Makila.</p>

Transkripzioa

-Geo pelotan jokatu bihar zuela /bihartzuela/, pelotan gu... anaiyakin, ordun dena, gaztiak dena. Geo anaiyan launak, eta etortze(n) zian denak basarria. Jai goizetan, eguartian eta batzutan kartetan, bestian kaniketan... bestian gordeketan... Gordeketan poto zar bat jartzen giñun, redondo bat, eta neska, aldamenian neska zan, ta besteik ez zan /etzan/ han´e. Eta dena ordun, ne denboan zan dena mutilla. Neska gutxi.

-Eta zu mutil...

-Ta ni, ni mutil tartian hazi naiz. Ni, esate (d)izut ba. Mutilla bihar nula neonek´e. Hala esate(n) zian amak: "Hi, neska, mutilla biha hunan". Bai, intentziyo hartan eingo zenduan, geo esaten nun nik... intenziyua, baiño neska atea! Eta hala behintzat ibiltze(n) giñen e... eskolatik etorrita ta [...]. Gaiñekuan aittak eta... Juteako ordun garai hartan [...] izaten zian, eta amak... amak ite(n) zun Donostia, goizeko sei t´erditako Portutxoa eamaten zun esnia, txanelian pasa ta bestaldea tranbia pasatze(n) zan. Ta Portutxo esate(n) giñun, ta hara. Zai egoten zan, aitta eta biyek jute(n) zien; aittak launtzen ziyon amai, ta tranbia hartzen zunian aitta etxea etortze(n) zan. Baiño ama Donostia jute(n) zan. Aittona, goizian jakita, baiño ama bost eta erditako... mototsak nitun, eta e... orraztu itte(n) zian mototsak. Eta geo jeisten nitzanian, klaro aizu, eukiko nun zimak bastante harruak eta hoik arpegiya garbitzen nunian hoik hola jartzen nittun hola tente, eta han jute(n) giñen korrika eskola, beatzik paiño lenuo jun biharko! Ta aittonak esate(n) ziyon aittari: "Hi, motell, eskola bial hitzak /bialtzak/ umi hoik, e!". Nik alde iten nun, e! Nik ez nun... anaiyai esate(n) (di)yo, baiño nik... gu ordun ganauakin ta ez giñan hameste ibiltzen. Gero gelditu in giñenian, ni bakarrik, ordun bai, ganau... dena in, baatza eta ganau ta etxian ta /da/, iñor etortze zan ta otorduk eta dena. Eta azkenian behintzat aittonak esate(n) zion. "Bai, bai. Gaur ez takit pa hoikin... bate(n) (b)at geldituko balitzake...". Ta aittona, ne aitta hasi omen zan /omentzan/, ta aittonak esate(n) omen zun: "Ez, hik bialtzeko hoik eskola, e! Iguar dik geo beste bi ordu pasatze badittugu´re". Eta bialdu ite(n) zigun aittonak. Bai, nik bestela alde ite(n) nun neonek, e. Nik baatzan ordun garai hartan gazte... behiyan aurrian ibili in behar izate(n) omen zan ordun; jiratzeko...
-Itaurren?

-Itaurren, bai. Bai, eta hala ibili nitzen... geo anaiya ibili zen eskolan, baiño harri partikularrak ein ta /da/ al dun guziya in ziyon ne anaiyai, ze horri, anaiordeko horri, baiño kosta in ziyon /intziyon/ eskolan, e, zeatzia.

-Gustatu ez.

-Gustatu ez iten. Ez gustatzen. Eta geo tratatu´re ordun gogor ite(n) zuten maixuak eta, e!

-Bai, gogor?

-Bai, bai. Eta maixtrak ere bai, oso.

-Jo-ta iten zuten ala...?

-Nei ez ziaten hola jo ta ez takit ne anaiyai jotzen ziyotela batzutan, ta bakizu eskutan zun horrekin danba igual emate(n) baizuten.
-Ta makilla eukitzen zuten ala...?
-Bai, bai, makil bat holako motx bat eukitzen zuten eskutan. Ta harrekin eozein iminziyua o zeak iten zitun, mobimentuk, eta akordatzeako danba igual jo o... Hola jarrita ´re jotze(n) omen zitun. Batzuk hola ere igual egote(n) omen zien /omentzien/ leziyua ez bazuten ikasten ta /da/.
-Eta zuek neska eta mutillak elkarrekin?
-Ez, alkarrekin ez. Ez.
-Eskola bat zan, baiña...
-Bat zan, baiño bi. Goiyen eta bihan. Gu goiyen ta /da/ mutillak bihan.
-Zuek maistrakin?
-Gu maistrakin, bai. Donostin, bai, maistrakin.
-Donostikua baiña dana erderaz.
-Dena erderaz! Dena erderaz!

10. Aitona oso maitea zuen

- **Erref:** DON-095/018
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 00:31:18. **Bukatu:** 00:33:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

Nobioarekin hasi zenean, aitona esan zion hari euskaraz egiteko. Errespetua. Aitonaren kontuak. Txixareak. Aitona kantatu egiten zion. Aitak ere kantatzen zuen.

11. Dantzara Hernanira

- **Erref:** DON-095/019
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:33:07. **Bukatu:** 00:34:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Beste garraio batzuk
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

<p>Dantzan noiz hasi zen. Oialuma, Hernani... Dantza soltea eta lotua. Tranbian joan eta oinez etorri. Tabernara sartuz gero, azkar enteratzen ziren.</p>

12. Jendearen marmarra

- **Erref:** DON-095/023
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 00:36:06. **Bukatu:** 00:37:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

Apaiz bat bazen, arrebarekin bizi zena. Esnea eramaten zioten. Pastelak ematen zizkion eta ezkutuan jaten zituen. Pastelak erostea gaizki ikusia zegoen. Jendea beti marmarka ibiltzen zen, baita elizan ere.

13. Mutil ugari aukeran

- **Erref:** DON-095/025
- **Iraupena:** 0:03:48. **Hasi:** 00:38:21. **Bukatu:** 00:42:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

<p>Mutilekin dantza egiten zuten, eta etxera laguntzen zieten. Errespetua zegoen. Batzuek bidean bidaltzen zituen. Dantzak. Kanpoko neskak etortzean, haiengana joaten ziren mutilak. Gonbidatu egiten zuten mutilek. Aste Nagusiko errebistak. Jantziak.</p>

Transkripzioa

-Eta esan dezu lehen geizki ikusiya zeudela... gauza asko zeudela gaizki ikusiyak. Eta mutilekin dantza itia ondo ikusiya zeon ala..?

-Bai, bai, dantza.

-Hori bai?

-Bai, dantzan ta /da/... baiño errespetoz, e! Bai, geo mutillak laundu ite(n) zizuen etxea. Ordun mutil faltik ez zan /etzan/ izaten. Ordun... neska baiño gehiyo zan mutilla. Oain neska sobra iruitzen zait dola. Baiña ordun, garai haitan mutilla asko, asko...

-Bazeon elejitzeko, orduan.

-Bai, bai, bai. Jesuuuus! Aukera haundiya zan. Bai, bai, bai. Ez zan /etzan/... ez ziñan /etziñan/ eozeiñekin ´e atrebitzen, baldin bazatorren launtzen ta / da/ bate heldu be o hola bizkarretik pixkat egoki pasiatuz etxea launtzen bazizun, hua hurrunguan etortzeko harrekin konforme. Baiño beste bat o... birian bialdu bihar izate(n) nittun! Eozin e... hasten zian eozein zean ta /da/ bialdu ite(n) nitun erditan, e, bai ba!

-Eskuluziak ´e bazian orduan.

-Bueno! Aprobetxamentua. Gaiñea, ordun, e emakumia baldin bazan baltzian e, ba ezta... ordun jesus, baltziak zenbat, tango diala, zea pasodobliak diala, bakizu ze musika jotzen zan Hernanin. Jo, hola eoten zan. Eta arrimatze(n) bazan: "Bua, hoik... Hoi arrimatze(n) dek!". Petxo haundiya baldin bazan ez takit zer. Denak bazuen... hankamia bazan, loriya bazan... ordun dena haundiya bihar zan /bihartzan/. Pantorrilla earrak, petxua ona... baiño gu umiak izaten giñan. Baiña korrientiak behintzat. Eta bueno, azkenian, ibiltze(n) baziñan eo eozin... geo etortze(n) bazan, kanpotikan etortze(n) neska bat, alemana o Ingalterra... o inglesa, gehiyenak animalik baiño okerrogo. Harrena jute(n) zien. Hemengo neskak

ya uzte(n) zituen askok. Ordun, Hernanin, e. Baiño gaiñekuan e... aukera zenun, ta oso mutil jatorrak ibiltze(n) zian. Neskak nahi bazun... oin beak ite(n) zien iñular aldea arrimatzen zian, ta beak lagunarte apai-meriendak ite(n) zituen, ta ordun mutillak, gaiñea, gonbidatu ite(n) zizun. "Nahi (de)zu nekin apaldu?" o zerbait beti... o "revista" bat ikustea, Donostia askotan jute(n) giñen gu... zeak ikustea, e, Semana Granden ta /da/ bakizu etortze(n) zian "revistak". Eta... ateatze(n) giñan, baiño ondo, ondo...

-Ze "revista", ze...?

-Bueno, ordun, ze esango (d)izut! Aiii... Cantiflas ta. Geo beste "revista"-k, ba hoi pelikula zan baiño... Hor, e, ibiltze(n) zianak... "Revistak" eite(n) zituenak ordun garai haitan... Nola da? Hankak okertuta nola ibiltze(n) zan ze hoi? Ze izena dun horrek? Oi, oain momentuan ez zait /etzait/ goatzen.

-Baiña aktoren bat?

-Bai, aktoriak´e bai ordun asko... bueno, "revistak" ikuste(n) genittun tarteka, eta gaiñekuan Donostia pasiatzea, baiño ondo jantzita jun behar zenun, e! Ordun trajiakin eta zapatak takoidunakin beti.

-Bai?

-Bai, bai, bai. Ta etxea etortzeako hanketako miñakin azkenian. Klaro, oiñez etorri bihar izate(n) zenun. Tranbian jeki eta geo tranbian jeki ta geo txalupa pasa behar zenun, bestela oiñez etorri bihar zenun Martutenetik basarria. Ta zapata takoidunakin aixe ibiltze(n) ziñan, baiño pasa... nekatu´re... o pasara eman´e hankairi ematen ziñozun, e. Ondo, ondo jantzi behar izate(n) zan, e! Uuu, ez pentsa, Donostia erozein bezela... ta bai ezein tokira ere...

-Txanelera igotzeko takoiak kendu behar igual...

-Bueno, bai, takoiyakin´e bai. Bai, ibiltze(n) giñan, bai, bai. Salta, ta aixe ibiltze(n) ziñen. Ta /da/ ohittu ite(n) ziñan. Geo portua zan be... zeakin lotu, lotzen giñun txanela, eta ordun, e, arrimatze(n) eta koxkan bat eo, pixkat balantza ingo zenun, baiño ez, ez, ez. Errex ibiltze(n) nitzan. Lur zuzenen baiño hobeto. Egitan, e. Ohittu, urian.

14. Amak gobara egiten zuen errioan

- **Erref:** DON-095/026
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:42:09. **Bukatu:** 00:45:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

Laburpena:

<p>Gobara egiten zuen amak, errioan. Anila. Nola zabaltzen zituzten maindireak. Mahaia. Hankak uretan. Berdura: porruak errioan garbitzen zituzten. Ganadua. Ahateak.</p>

Transkripzioa

-Geo goara ite(n) zun gue amak. Eta ekartze(n) zun tranbian, burun ekartze(n) zun sekulako maindire pillak eta paiñeluk eta. Beti erriyua jute(n) nitzan, ta ama beti bildurrez. Erriyua hartu zerbait ta txoakeiyekin beti. Ttikitan, e. Eta amak goara... "es que" ordun...

-Erriyuan iten zun?

-Erriyuan dena ite(n) genun garbitu. Ura erriyokua, eltzian jartzeko o geok

garbitzeko, eta denetako erriyoko ura. Gaiñea, maindiriak eta eukitze(n) giñunian jaboí ure... jaboitan eo as... geo mahai bat bazan, harrekin astindu, jaboiyakin eman, baiño erriyuan sarzte(n) zendun maindiria, hola ite(n) zenun... ta gelditze(n) zian... Geo, anilla aparte izate(n) zan, ta harrekin han sartu ta urdiñantzako kolore (b)at... Geo, aittonak iña zakaten illera, eurraikin ta /da/ alanbriekin jarri zabaltzeko, dena kanpuan zabaltzen zan ba illeran. Eta han jartzeko geo ateatzen zian maindiriak, bate plantxatu be, geo zeorrek plegarun hola iten ziñozun ta gelditze(n) zien... ta gero berriz´e lotu ta Donostia. Sehaska ta hoi denak emate(n) zigun gue amai, ta amak zerbait ateatzeko, ezta?

-Eta hori, ura... urakin ta /da/ egosten eta...

-Ez, ez.

-Beratzen-eta eukitzen zenuten ala ez?

-Ez, ez, ez. Sartzen zitun erriyun barreño haundi (b)atian, jaboí-uretan igual eukitzen zitun, baiño arraskatu. Gue amak arraskatu ite(n) zun eskukin.

Dena mantxak eta baldin bazian ta /da/, dena arraskatu egoki...

-Mahaia...

-Mahai bat zan.

-Erriyora eramaten zan?

-Bai, mahai ariña zan. O bestela harriyan gaiñian ai bihar zenun, baiño harriya baiño nahiyo nun mahai bat. [...] txukunao gelditze(n) zalako.

-Orduan erriyora eramaten zan mahai hori.

-Bai, han eoten zan, zea, arbol baten atze batian eoten zan, o txabol batian eukitze...

-Eta tiñarik edo erabiltzen zan barruan sartu ta hankak ez bustitzeko edo...?

-Ez, ez, ez. Ura, uretan, uretan!

-Hankak uretan beti.

-Bai, eta berdura ite(n) giñula´re, txanelan sartze(n) genun, sartze(n) nitzan eta karretilkara bat, eunero-eunero karretilkara bat atea behar genun zea, porrua. Hara, gaizki ingo nun, nik "es que"...

-Lasai, lasai.

-Eta porrua ateatzen genunian negu partian e... han bertan zuritze(n) genun, ta hartu karretillan ta ekartze(n) genun portua, ureta. Eta han exeitze(n) nitzan txanelen, hemen txalupan, atzian hemen exeitzeko tokiya zun, eta exeitzen giñan eta porruk garbitzen nittun. Karretilka bat eunero Donostia anaiyak eamaten zun, ta /da/ amak. Eta eskarolak o eozein gauz, berdura, jun ta /da/ dena han ite(n) genun. Ganaua, dena hara ura eatea. Uretan ibiltze(n) zian, ura eaten zuen eta etxea, zintzo-zintzo, saillian jute(n) zian etxea´re. Ahatiak´e izan genitun. Ahatiak´e, ahatak eo dien hoik beak iñularrian... goizian artuak ta botatze(n) geniyon ta iñularrian etortze(n) zien, illunbistan o hola, eta dena illeran-illeran, arra aurretik dala, emiak atzetik, oso oso politta zan, e, nola etortze(n) zien. Zu han ez ziñan /etziñan/ goatu´re iten...

15. Beti sortzen zuen zerbait bisitentzat

- **Erref:** DON-095/027
- **Iraupena:** 0:03:36. **Hasi:** 00:45:09. **Bukatu:** 00:48:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

Iluntzean, josten. Amarekin eta Martutenen ikasi zuen. Grosen egon zen neskame. Baina amak faltan ematen zuen bera. Sukaldaritza gustatzen zaio. Bisitei zer eman jaten. Txokolatea, taloa. Esparragoak. Flana.

16. Egurra txikitzen aizkorarekin

- **Erref:** DON-095/029
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:48:50. **Bukatu:** 00:50:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

Beheko sua izan zuten eta gero ekonomika. Ur beroa. Egurra txikitzen, aizkoran. Maisuarekin pilotan ibiltzen zen.

17. Taloak egiten

- **Erref:** DON-095/030
- **Iraupena:** 0:03:01. **Hasi:** 00:50:16. **Bukatu:** 00:53:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

Taloea egiten zuen asko. Ama nora joaten zen irin bila. Errotak itxita. Orea nola egiten den. Garbitasuna. Urumeako ura. Aitonak bakailaoa, gosaritarako.

18. Babarrunak eta pitarra

- **Erref:** DON-095/034
- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 00:56:27. **Bukatu:** 00:58:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserríko lanak » Sagardogintza
- Baserría » Baserríko bizimodua » Baserríko bizimodua
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Baserría » Baserríko lanak » Sagarra, sagastiak

Laburpena:

<p>Babarrunak eramatera joaten zen mendira. Denek batetik jaten zuten han, baina etxean ez. Pitarra edaten zuten. Sagardoa. Sagarra biltzen.</p>

19. Txerria nola hiltzen zuten

- **Erref:** DON-095/036

- **Iraupena:** 0:03:39. **Hasi:** 00:58:51. **Bukatu:** 01:02:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

<p>Txerria hiltzen zutenean, odola nahastu. Odolkiak nola egiten zituzten. Tipula. Espezieak. Gibela.</p>

20. Txerri puskek gatzetan

- **Erref:** DON-095/037
- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 01:02:30. **Bukatu:** 01:04:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

<p>Txorizoak. Gatzetan zein txerri puska jartzen zituzten. Maiatza baino lehen jan behar izaten zuten. "Txerri munik".</p>

21. Apaizak ederki bizi ziren

- **Erref:** DON-095/038
- **Iraupena:** 0:03:10. **Hasi:** 01:04:21. **Bukatu:** 01:07:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Apaizak txanelean pasatzen ziren, aitona bisitatzera. Martuteneko apaizaren kapritxoak. Ilarrak. Konfesatzera, hilero. Emakumea, beti bekatari.

22. Aingiretan, errioan

- **Erref:** DON-095/040
- **Iraupena:** 0:02:43. **Hasi:** 01:07:47. **Bukatu:** 01:10:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:

Errioa garbia zegoen. Arraina. Aingiretan ibiltzen zen anaiarekin. Aparejua. Etxean zituzten erretratuekin gertatu zena.

23. Angulak eta aingirak

- **Erref:** DON-095/042
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 01:10:40. **Bukatu:** 01:13:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:

Angulak. Marea igotzen zenean. Sarea. Aingirak Bretxara eramaten zituen anaiak. Handik Madrilera, paellan jateko. Paderan saltoka.

24. Apaiz gaztea, txanelean gustura

- **Erref:** DON-095/043
- **Iraupena:** 0:03:43. **Hasi:** 01:13:05. **Bukatu:** 01:16:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera

Laburpena:

Izokinak Nicolasa jatetxera eramaten zituen amak. Nola hondatu zen errioa. Txanela. Apaiz gaztea pasatzen zuen errioan beste aldera. Apaizaren intentzioak. Errespetua. Nobio kontuak.

25. Hilerokoa, ezkutatu beharrekoa

- **Erref:** DON-095/045
- **Iraupena:** 0:03:10. **Hasi:** 01:18:43. **Bukatu:** 01:21:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Sexua

Laburpena:

<p>Amak esaten zion mutilekin kontuz ibiltzeko. Aita bila ateratzen zen. Hilerokoa. Ama nolakoa zen.</p>

Transkripzioa

-Eta etxian, e, hitz eiten zizuten... "kontuz mutillekin" ta /da/ holakorik bai ala... ?

-Amak pai. Amak beti esate(n) zian, e. Amak esate(n) zian: “Bai, gu... razan ez den /ezten/ inor gelditu ezkontzarako, e!”. Hoi bai, bildurra sartzen zian, amak pai, amak errespetua hola zun, buaa.

-Eta...

-Aitta, aitta birea ateatze(n) zizaiten askotan. “Mutillakin baldin bator´e”, ba... “Nun da?” o “ba al dator?” o, etxea etortzen zienean, aitta eoten zan mutillekin hizketan igual, e. Hurruna igual gelditu, ez zan /etzan/ eongo, eun hartan etorri zala o bi bider etorri zala ta... “Bai, hor dao, onduan do”. Etxe onduan do, baserri onduan do... mutillakin eo. Hor da. Ta ama konforme. Baiño gaiñekuan bai, beiratu... uf.

-Eta haurdun geratzeko...

-Garai haitan...

-Ze in behar zan edo, zuek, zuek esplikaziyoik ta holako konturik ez...

-Ez, ez, ez, behin´e ez. Ez, ez, ez. Beste ze hoikin, euki nunian, aurretik esan zien /esantzien/... odola ta jo, hoik´e denak gordian, e! Dena!

-Ez zan hitz eiten...

-Mutillak eta... askotan anaiyak “bai”, nik bastante gaixki pasatzen nun, eta esate(n) zian: “Bai, atsaldeako prepatuko haiz, bai”, esate(n) zian anaiyak askotan. Goizian ez, “baiño atsaldeako jarriko haiz”, ta... eunan erdiya igual erdipurdi pasatze(n) bainun hillekuakin. Eta ordun holako indirektak-eta aittu bai, baiño geo mutillak zuen kostunbria atzetik parian pasatzian hola ipurdian jo eta zu, haikin bazaude, uuu! Ta gaiñea, ezta notatu´re ez, ezta... ezkondu arte ezta notatu´re hoikin zauden ez zauden, e. Juu. Amanak´e erdik nik ez nittun iartzen, harrek earke gordetzen zitun. Han izate(n) zian ze batzuk, holako toalla batzuk, eta maindire tartian harrek disimulon, eta iñork ez, iñok ikusten. Ta oso garbi, e, txukun, e, ez pentsa... nik ikusi izan ditut kanpua zabaldua oso gaizki baiño, oso... erriyun gaiñea, gue ama oso garbiya zan ta /da/... Dena, etxia´re bai, pintatzen ta /da/... dena, bea, ama aitzen zan. Dena, dena. Ordun e... elbiya ukuillutik bela etortze zan... Sukaldia jartze(n) zenunian geo bazan armaiyo bat be platerakin, oso platerakin politta baiño paperakin, txulatukin, ta /da/ oso dotore jartzen zun gue amak. Eta astero-astero garbitu bihar izate(n) zun.

-Eta hillerokua jetsiko zala ta hori, aurretik...

-Amak esan zian. Amak esan zian, bai.

-Orduan amak esplika...

-Amak esplikatu zian izan baiño lentxio, ya ez takit, hamabi urte o ze izango nittun. Bai, hasi zaiten esaten. Baiño bildur haundiya zan garai haitan, eozeiñekin eozeiñ... baiño aitta, aitta ez. Aittak eta hola konbersaziyua, berdekein ta /da/... batzuk txiste batzuk botatze(n) bazituen ta /da/ han kuadrillan ta... aizu, saardua eaten ta /da/... batek txistia bota ta... guk ez genun inportantzik... Nik ez, aittu baiño... beti alde ite(n) genun, gauza hoitan nik alde ite(n) nun, nei ez zaiten /etzaiten/... Gustatu ite(n) zait nei, e, gustatu bai, dantzian, broma... oain´e bai, batzuk baldin badia bromako, ta nik ondo hartze(n) (d)et dena, dena ondo.

26. Erratzak eta menda-belarra

- **Erref:** DON-095/047
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 01:23:06. **Bukatu:** 01:24:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Meteorologia

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala

Laburpena:

<p>Erratzak etxean egiten zituzten. Sepulturako losen antzeko lurra, baserrian. Menda-belarra. Arkakusoa.</p>

27. Sendabelarrekin egindako ukenduak

- **Erref:** DON-095/049
- **Iraupena:** 0:03:19. **Hasi:** 01:26:11. **Bukatu:** 01:29:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Natura » Meteorologia

Laburpena:

Enplastoak egiteko berbena, baratxuria, olio... Plantiña belarra. Zaingorriekin eta arrozarekin ukendua egiten zuen aitonak, zaurientzat. Ukendua nola egiten duen berak.

28. Enplasteroak

- **Erref:** DON-095/051
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 01:30:24. **Bukatu:** 01:31:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak
- Natura » Meteorologia

Laburpena:

Astigarragako kurandera, Maria. Behatz batean ateratako koskorak. Botila ipurdia. Enplasteroak.

29. Eztarriko mina eta txitxareak

- **Erref:** DON-095/053
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 01:32:23. **Bukatu:** 01:34:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

Eztarriko minarentzat, hondar beroa. Txitxareentzat baratxuria. Medikutara gutxi. Aitaren kontuak. Zigarroak eta puruak. Edaria. Ardoa noiz edaten zuten gizonek.

30. Gerra etorri zeneko kontuak

- **Erref:** DON-095/055
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 01:36:03. **Bukatu:** 01:37:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939)

Laburpena:

Gerra garaia. Aitonaren arreba mojak baserrira joan ziren. Aita Ferrolen egon zen. Jendea lurrean lotan. Bonbak.

Transkripzioa

-Eta ez dakit... gerra... bueno, zu gerra aurretik jaiyo ziñan, baiña...
-Bai, gerra denboa... guk, egiya esan, bildurra bai, e! Oooo. Etortze(n) zian, e, aittonak´e zitun bi monja Santanderren eta haik´e basarria etorri zian. Eee... gue aittak eta amak, bi aitta, ne aittonak eta aittak´e espadara in omen zun, gizonak etortze(n) omen zien billa, eamateko, eta eskapadak in zituen baiño ez zituen /etzituen/ eaman. Ne aittak Ferrolen in zun /intzun/ ordun... Soldaduskak´e ne garaiko mutillak dena, dena Afrika ta dena bildurrez eoten zian. Ordun garai haitan dena hoik, toki hoita tokatze(n) zian ta... jun bihar izate(n) zuen. Eta gañekuan aitta Ferrolen eon zan /eontzan/, ta aittona ez zait goatzen aittonanik ezer, baiño... etortze(n) zian, e, basarritan, e... izeba ta osaba ta nei goatzen zait... lurrian ta /da/ ahal dan tokin lo in bihar. Jendia etxian! Basarrin, hemen, basarri hontan. Erriyotik bestaldea. Nik ez takit, geo Santiyomendin hasi ziala bonbak botatzen, baatzaraiño igual etortze(n) zian, xist. Eta flist, soiñua. Hola, soiñua, ta ateatzeik ez etxetik bildurrez. Baatza, janaiyak-ta itea jun bihar, ganaua-ta... bildurrez ibiltze(n) emen zian aittona ta denak. Eta holako kontuak.

31. Zer prestatzen zuten jateko

- **Erref:** DON-095/059
- **Iraupena:** 0:02:39. **Hasi:** 01:39:25. **Bukatu:** 01:42:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak

Laburpena:

<p>Kazuelak prestatzen zituen baserrian. Gixatuak patata asko. Arraina. Antxoa saltzaileak. Errioan harrapatutakoa ez zen asko jaten. Behiak beste baserri batera eramaten zituzten, uholdeetan. Esnea ematen zieten trukean.</p>

32. Gurutzeak eta erramua

- **Erref:** DON-095/062

- **Iraupena:** 0:00:51. **Hasi:** 01:44:35. **Bukatu:** 01:45:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Gurutzeak jartzen zituzten soroetan, santakruzetan. Kredoa, belauniko jarrita. Erramua.

33. 300 ahate eta piperrak

- **Erref:** DON-095/068
- **Iraupena:** 0:02:56. **Hasi:** 01:49:08. **Bukatu:** 01:52:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

300 ahate eduki zituzten, ezkondu ondoren; Hernanira saltzera, tranbian. Hernanira saltzera. Piperra, lekak.

34. Uholdeetako ibilerak

- **Erref:** DON-095/071
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 01:53:41. **Bukatu:** 01:55:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:

<p>Uholdeetan, baserrian geratzen ziren. Enborrak ekartzen zituen urak. Hutsetik hasi behar berriro. Auzolana.</p>

35. Babarruna entregatu behar

- **Erref:** DON-095/073
- **Iraupena:** 0:03:51. **Hasi:** 01:55:19. **Bukatu:** 01:59:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

Errazionamendu kartila. Babarruna eta artoa entregatu beharra. Olioia. Ogirik ez. Estraperloa. Goserik ez: aia, udare egosiak. Gizonak nola janzten ziren.

36. Denerako zuten astia

- **Erref:** DON-095/079
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 02:04:31. **Bukatu:** 02:05:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Euskara » Tratamenduak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Lekak bildu eta soinekoa plantxatu, denerako zuen astia. Mutila puntual etortzea gustatzen zitzaion. Tranbian. Euskaraz hitz egiten zuten etxean, hika.</p>

37. Amari zuka

- **Erref:** DON-095/081
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 02:06:24. **Bukatu:** 02:07:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Berorika
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Amari zuka. Apaizari berorika, baina ez zitzaion irteten. Aitonak hika egiten zien. Zestoak egiten zituen. Aitak ohitura zuen jotzeko, aitona ez. Martutenera kanpoko jende asko joan zen: erdaraz asko.</p>

38. Baserrian beti morroia, neskamerik ez

- **Erref:** DON-095/083
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 02:09:25. **Bukatu:** 02:11:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

<p>Etxean zeintzuk bizi ziren. Amak emakumea ekarri nahi zuen baserrira, baina morroia ekarri zuten (gero senarra izango zena), aitona hala nahi zuelako. Maiorazkoaren garrantzia.</p>

Transkripzioa

-Naparra ta errezildar ta /da/ hoik denak etortze(n) zian morroi basarrita. Gue etxea ez, gue etxian banittun, gue bi anaiyak eta geo lehengusua... ta aitta, lau gizon. Amak esaten zun: "Gizonekin...". Ta geo beti bate(n) (b)at zan etortze(n) zana, nahi bazun laundu o... eta ez zun /etzun/ nahi... Amak nahiyo zun emakumia. Lehengusuk´e, o illobak bazian amaik eta aittik pe geldituk, eta haik e... Emakumia nahi, eta ne aittonak beti mutilla. Beti mutilla. Ta mutilla ekarri zuten honea. Bai, ta azkenian nekin bizitu bihar izandu zun... hara, ne aittona bizi balitzake esango niyon: "Oain ze? Oain zer?". Jooo. Makiña (b)bat bider esate(n) zian. Mutilla... "Es que" ordun auzuan´e hala kontatzen zan: "Bai, halako neska holako maiyorazkuakin hasi den! Ta jolin, hoi den suertia!" ta... garai hartan esate(n) zuten, dena maiyorazkua. Ta bestia, bestia sobrantek, neska eta ezta mutillak baldin bazian´e, sobrante. Aurrenekua... askotan jaleotako izaten zien aurrenekuak, e. Zeatik bestiak ezin zuten, inbiriyak ta... basarritan izate(n) zian eskandaluk.

-Klaro, klaro, beti maiyorazgua...

-Garai haitan, bai.

-Baiña mutilla. Neska izan ezkeru maiyorazkua...

-Gue aitta´re bakarra zan. Bi arreba zitun. Bakarra zan, ta mimatu samarra zan, e. Bai.

-Eta neska izan ezkeru maiyorazgua? Lenengua neska izan ezkeru?

-Ba orduan gutxi zan, e. Nik ez nun...

-Bigarrenantzat izaten zan?

-Bai, bai. Seuru.

-Neska izan ezkeru lelengua eta bigarrena mutilla...

-Bai, bai, bai, harrentzako. Bai, mutilla bihar! Ta askotan igual ez zian / etzian/ konpontzen, e! Erreiña, erreñakin igual ez zien konpontzen ta...

39. Esnea biltzea, gizonen lana

- **Erref:** DON-095/085
- **Iraupena:** 0:03:32. **Hasi:** 02:11:18. **Bukatu:** 02:14:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Aita ferietara joaten zen udareekin. Amak esaten zion esne biltzen ez ikasteko. Gizonen lana zen. Arropa eta otorduak beti prest izan behar gizonarentzat. Orain aldatu egin da hori. Emakumeek siestarik ez.

Transkripzioa

-Feria ta aitta jute(n) zan udariakin, ta zestuk hartu ta udaria saltzea feria Hernania. Oiñez, e, ta tranbian´e jungo zan. Eta ez... "ez dezu ikasi bihar", batzutan esate(n) zian: "Ez den /ezten/ ikasi bihar behi biltzen!". Esnia behiyari biltzen. "Gaiñekua dena! Jaten eman, azpik atea... nahi zuna, baiño behiyak biltzen ez". Zeatikan zuk ikasten bazenun behiyak biltzen, eo amak o nik, bazekiten arrebak eo andriak behiyak bilduko zutela, ta orduan berandu o... beak nahi dutenian etorriko zi... liaken ta. Behiyak biltziatik etorri in bihar izate(n) zuen etxea. Konprenitzen? Gizonak.

-Orduan, hori ez zan ikasi bihar...

-Ez. Ne amak esate(n) zin: "Hoi ez!". Ta bazian zakitenak eta sukaldia ijitok bezela eukiko zuten, baiño behiyak, ta emakumiak bildu, ta emakume ona, joo. Behiyak biltzen zitun ta /da/! Gaiñeako lanak in ta /da/ gizona etortze(n) zan erdi kontentu o... Kontentu etorri ta dena iña... Apaldu ta ohiyea. Eta bestela, berriz... guk ez, guk alrebes ite(n) giñun, eta askok gizonak ohittu behiyak biltzen o arrebak ingo (d)ixkio eo andriak ingo ixkie, eta geo denak, ukuillu lanak inda, gizona dena etxea etorri, apaldu, ez zuen /etzuen/ ezta plater bat ere jasotzen gizonak, dena aurrian jarri bihar ziñozun... igual´de erropak. Dena bere garaitan bere... han. Ezta, ezta armaiyora ez zakazun bialtzeik, paiñeluan billa o galtzaren billa, ez zakazun, zeatik nahastutzen zituen denak. Hara jun biharrian horrea jun eo... horkuak... beti zuk ohiya gaiñian o beti pronto jarri.

-Erropa ta dana.

-Dena, dena. Otordua ere bai, e, otordua ezta plater (b)at, e. Oain dena gizonak jaso ta... oain zea, lababajillan jaso... bestela, geatzen dian pixkak neonek ite(n) (d) itut, baiño ni ondo ez panao ingo liake, e. Baiño jaso beak ite(n) nau. Kafesnia o kafia o belarrak hartu biha baittu, beak ateako nau dena, e. Nik... azkeneko momentuan exeriko baiño geo beak denak eingo nau. Jaso ere bai.

-Bueno, eskerrak hori aldatu in dala, ezta?

-Bai, bai, ta eozein gauzetan´e launtzeko pronto, e. Dendako, atea behar badeu o, dena biyok dena, dena. Bai, ohittu ta umieri eakutsi´re bai. Bai, oain ba gizonak dena, suhiak beak launtzen dute denea, baiño gue denboan ez, e. Ezta ezerre! Dena aurea, zapatak eta dena. Dena, dena, aurrian jarri biha xixkiazun. Baiño plater bat´e...

-Hola ohituta...

-Jute(n) zian siesta gizonak eta amak esate(n) zian: "Bai, bakizu ze in biha (d)iñaun? Mahaiyan jarri ta nik hola lo pixkat in biha (d)iñat, e! Geo ingo (d)izkiñau!". Ontzik. Zuzenian ite(n) genitun, e, "en general". Baiño behin beandu xamar uzten bagenittun, igual bate(n) (b)at bisita etorri dala, ta ontzik iteko. "Ikuste(n) al den?", esate(n) zian amak. "Ikuste(n) al den? Behin in bihar ta /da/ oain´e holako etorri ta esango ziñen. Oaindik ontzik-eta garbitzeko, garai hontan". Ta bitartian gu aprobetxatu ite(n) giñan, "es que" ordu erdi bat o hiru ordu laurden pasako zituen kuar... ohiya jute(n) zian haik. Orduan ez zan /etzan/ silloiyik. Geo bai, telebisiyua jarri ta ein danian...

-Eta gizonak siestara eta emakumiak ez?

-Emakumiak, gu ezin bukatuik lanak! Haik jute(n) zian, ta /da/ guk ontzik diala, marmitik diala, ta geo haik`e jeisten zianian, haikin kanpoa igual jun behar zenun. O belarrak baldin bazian belarrak eitea, o... berdura biltzea o aldatzea o... jun in behar, o haziya botatzea o... jun in behar zendun.

-Kanpokua eta barrukua.

-Dena! Dena, dena, dena. Guk, e, ez genun /ezkenun/, "es que, es que"...

40. Lurra lantzeko tresnak

- **Erref:** DON-095/087
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 02:16:00. **Bukatu:** 02:17:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera
- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

Lurra lantzeko tresnak. Goldea. Zaldia. Tratua. Rekaderak.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-04-10

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com